



Arartekoaren 2019R-20-18 Ebazpena, 2019ko abuztuaren 8koa. Horren bidez, Okondoko Udalari gomendatzen zaio bere sarbide nagusietan hirigune eta erakundeak behar bezala errotula ditzala eta udalerrri guztiko posta-helbideen euskarri izateko kartografia digitala egunera dezala.

Aurrekariak

1. Arartekoak (...) andrearen kexa jaso du. Bertan, kexagileak, bizi den baserriaren kokapenaren berri emateko seinaleztapenik ez dagoela azaldu du. Kexaren arrazoia egoera horren aurrean Okondoko Udalaren jarduerarik eza da.

Kexagilearen esanetan, senitartekoak osasun-arazoak dituenek, maiz anbulantziaren zerbitzua behar izaten dute. Zerbitzu honek eta bestelako zerbitzu publikoek (suhiltzaileek, Ertzaintzak eta abarrek) baserri sakabanatuen landa-eremuan kokatutako egoitzara iristeko zailtasun larriak dituzte. Auzoa eta baserria seinaleztatu gabe daudenez, eskatutako zerbitzuak galdu egiten dira eta egoera larrietan egoitzara beranduago iristen dira, nahiz eta erantzute-denbora oinarritzkoa den. Interesdunek behin baino gehiagotan planteatu dute arazoa udalean (besteak beste, 2017ko apirilaren 10eko idazkiaren bitartez), behar bezalako erantzunik lortu gabe.

2. Kexan deskribatutakoa balioztatu ostean, Arartekoak Okondoko Udalari informazioa eskatu zion, baina udalak ofizialki eskatutako lankidetzari ez dio erantzun.
3. Erakunde honek esku hartu ostean, ordea, interesdunak 2018ko apirilaren 11n alkatearen idazkia jaso zuen. Horrek azaldutakoari jarraiki, "mapa topografikoa" eguneratzearen ondorioz, udalerriko kale-izendegia aldatu behar zela egiaztatu zen, baina seinaleak oraindik jarri gabe zeuden. Halaber, idazki horretan interesdunari jakinarazi zitzaion denbora laburrean udalaren web-orrian "Okondoko kale-izendegiaren bisorea" jarriko zela abian. Aplikazio horri esker, posta helbideak kontsulta daitezke eta zerbitzuek etxebizitza desberdinetara iristeko ibilbideak ezagutu ditzakete.

Azkenik, Udalaren esanetan, bisorea erabilgarria zenean, aurrez ikusia zuen, orokorrean biztanle guztiei azaltzeaz gain, Larrialdiko Arreta Zerbitzuarekin bilera egitea, tresnaren erabilera-aukerak adierazteko.

4. Ondoren, erakunde honetako langileek udal-idazkariarekin zenbait gestio egin dituzte, abian jarri behar ziren jardueren izapideak ezagutzeko, helbide elektronikoz 2018ko abuztuaren 28an interesdunak Arartekoari jakinarazitakoaren arabera, kexaren arazoak irauten zuelako.





2018ko abuztuaren 31n, posta elektronikoz, udalak Arartekoari kale-izendegiaren inguruko eguneratze-lanen berri eman zion. Nolanahi ere, lan horiek konplexuak ziren eta denbora gehiago behar zen, baina esku-hartzeak epe laburrean amaitu behar zuen, jarduerak eskatuak baitzeuden. Gainera, publizitate handiagoa emateko, postontzietan informazioa sartzearekin batera, seinaleak jarri dira eta Larrialdiko Arreta Zerbitzuari nahiz Eusko Jaurlaritzari (Goeuskadi bisorea, etab.) egoera berriaren berri eman zaie.

5. Telefonoz harremana izan ostean, 2019ko apirilaren 5ean posta elektronikoz udalari berriz eskatu zitzaion auzoen seinaleztapen eta gainerako neurriak ezartzeari buruzko informazio zehatza. Udalak azkeneko informazioan seinaleak jarriak zeudela azaldu arren, interesdunak azaldutakoaren arabera, arazoak bere horretan jarraitzen zuen. Ildo horri eutsiz, idazkun txikiak jarri zituzten, baina errepidetik ezin zitezkeen ikusi eta ez zuten behar bezala betetzen bizitegi-erakinen gune desberdinetarako sarbideen berri emateko funtzioa.

Interesdunaren iritziz, udalak seinaleak errepidean bertan jarri behar zituen, gune eta auzo desberdinak aipatzeko eta osasun- eta larrialdi-zerbitzuek modu egokian eta zalantzarik gabe gune sakabanatuetan kokatutako etxebizitzak aurkitu ahal izateko.

Bestalde, kale-izendegia eguneratzearen proiektuari eta zegokion tresna informatikoan aplikatzeari buruzko egoera jakinarazi nahi izan zen.

6. Arartekoak alderdi horien inguruan ez du informaziorik jaso, nahiz eta gestioak egin eta kexa izapidetzen hasi zenetik denbora luzea igaro, beraz, udalerrria, hiriguneak eta hiri bideak errotulatzearen arloan legezko eskakizunei dagokienez gogorarazpen ebazpen hau egitea beharrezkotzat jotzen da, ondorengo gogoetetan oinarrituta.

Gogoetak

1. Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiak (RD1690/1986, uztailaren 11koak) 75.1 artikuluan hau xedatzen du zehazki:

“Los Ayuntamientos mantendrán actualizadas la nomenclatura y rotulación de las vías públicas, y la numeración de los edificios, informando de ello a todas las Administraciones públicas interesadas.

Deberán también mantener la correspondiente cartografía o, en su defecto, referencia precisa de las direcciones postales con la cartografía elaborada por la Administración competente.”





Araudi hori betez, **“Estatistikako Nazio Institutuko lehendakariaren eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Eskumenen Koordinaziorako zuzendari nagusiaren 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpena, udal-errolda kudeatzeari buruz udalei argibide teknikoak ematen dizkiena”**. 14.4. atalean hala dio:

“De acuerdo con los artículos 75 y 76 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, los Ayuntamientos deben mantener perfectamente identificados sobre el terreno cada vía urbana, entidad y núcleo de población.

Los nombres del municipio, entidades y núcleos de población deben figurar rotulados en sus principales accesos. En los núcleos debe indicarse, asimismo, el nombre de la entidad de población a la que pertenece.

.../...

El nombre elegido deberá estar en rótulo bien visible colocado al principio y al final de la calle y en una, al menos, de las esquinas de cada cruce. Se recomienda considerar como principio de la vía el extremo o acceso más próximo al centro o lugar más típico de la entidad de población. En las plazas, el rótulo se colocará en su edificio preeminente y en sus principales accesos.

En las barriadas con calles irregulares, que presenten entrantes o plazoletas respecto a la vía matriz deben colocarse tantos rótulos de denominación como sea necesario para la perfecta identificación. Es aconsejable que en estos casos cada edificio lleve el rótulo de la vía a la que pertenece.”

Horrez gain, argibide bereko 14.5. artikulua honako hau agintzen du:

Los Ayuntamientos deberán mantener actualizada la numeración de los edificios, tanto en las vías pertenecientes a núcleos de población como en la parte diseminada, debiendo estar fijado en cada uno el número que le corresponda. Además, de acuerdo con el artículo 75 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales, deberán mantener la correspondiente cartografía digital o, en su defecto, referencia precisa de las direcciones postales con la cartografía elaborada por la Administración competente.

Azkenik, atalak sakabanatuak egonez gero, eraikinak zenbatzeko irizpideak definitzen ditu. Aurrekoaren harira, ebazpenari jarraiki, eraikin guztiak zenbatuak egongo dira. Bideetan, errepideetan edo bestelako bideetan zehar banatuak badaude, hiriguneko bideen antzera zenbatzea gomendagarria da eta erabat sakabanatuak badaude, entitate bereziaren barruan zenbaki korrelatiboak izango dituzte. Xede horietarako, argibidearen babesean, orokorrean, sakabanatuta





dagoen eraikin oro koka daitekeen biztanle-entitate berezi, bide edo sasibidearen izenaren arabera identifikatuko da eta horri bere zenbakia erantsiko zaio. Hori ezinezkoa suertatzen bada, biztanle-entitatearen izena eta horri esleitutako serie bakarraren zenbakia ipiniko zaio.

2. Arloan lege eskakizunak ikusirik, aurreko gogoetarekin bat eraikinen zenbakiak zehaztutakoan, udalak presaz eta arduraz udalerrri, biztanle-entitate, hiri-bide eta eraikinetako errotuluak jartzeari ekingo dio, eraikin guztiak erraz aurkitzeko xedez. Aurrekoarekin batera, oinarrizkoa da udalerriko biztanleen egoitzak behar bezala kokatzeko kartografia digitala egitea, udalerrri guztiko posta helbideen euskarri izan dadin.

Nahiz eta lan-mota hori konplexua den, 2016. urtean eguneratze lanak hasi zirenetik, udalak ezartzeko denbora nahikoa izan du, gune sakabanatuetan bizi diren udalerriko pertsonentzat oso garrantzitsua baita. Nolanahi ere, eskatzen dituzten zerbitzu publikoek beren egoitzak modu egokian kokatzeko zailtasunak dituzte.

Hori guztia dela-eta, gomendio hau egiten diogu Okondoko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak—11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz:

GOMENDIOA

1. Ahalik eta azkarrena udalerrian biztanle-gune sakabanatuen errotulazioari buruzko lege eskakizunak betetzea eta gune horietako etxebizitzak behar bezala kokatzeko seinale nahikoak ipintzea.
2. Era berean, udalerriko kartografia digitala egokiro eguneratzea eta, orokorrean, jendearen eta larrialdiko zerbitzu publikoen nahiz bestelakoen esku jartzea. Xede horrez, bereziki, egun erabiltzen diren tresna informatikoez baliatuko da.

